

KSIate PROGRAMA

Emaitzen Txostena
2019 - 2020

2021eko urtarrila

IDOM

TABAKALERA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA
—


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EDUKIEN AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. IKUSPEGI OROKORRA	3
3. NAZIOARTEKO DIAGNOSTIKOEN FASEA	4
4. NAZIOARTEKOTZE PLANEN FASEA.....	6
5. PRESTAKUNTZA FASEA	8
6. HEDAPEN FASEA	11
7. 2019. URTEKO KSIATEAREN JARRAIPEN FASEA	13
I. ERANSKINA: 2019. URTEKO PARTE HARTZAILEEN ZERRRENDA	14
II. ERANSKINA: 2019. URTEKO PLANEN FASEAREN PARTE HARTZAILEEN ZERRRENDA	16
III. ERANSKINA: 2020. URTEKO ERAKUNDE PARTE HARTZAILEEN ZERRRENDA.....	17
IV. ERANSKINA: 2020. URTEKO PLANEN FASEAREN PARTE HARTZAILEEN ZERRRENDA	19

1. SARRERA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatua eta Tabakalerak kudeatua, KSlatea programak – Kultura eta Sormen industrien Nazioartekotzerako programak, **Euskadiko Kultur eta Sormen sektorearen nazioartekotzea du helburu**, EAE-en sektorea definitzeko eta garatzeko gauzatzen ari diren estrategia berrien esparruan.

Programak bi edizio izan ditu, 2019 eta 2020akoa, ildo hauetan oinarrituta:

Kultura eta sormen-sektoreko erakundeentzat **balioa sortzea**, hurrengo jardueren inguruan antolatuta:

- **KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA:** programaren inguruan erakundeak erakartzea eta KSI-en masa kritiko adierazgarri bat sortzea.
- **NAZIOARTEKOTZE DIAGNOSTIKOAK:** Euskadiko KSI sektoreko erakundeei haiek duten nazioartekotzerako ahalmena ebaluatzen laguntzea. Bigarren edizioan, gainera, COVID-19-ren testuinguruan parte hartzaileen balio proposamena berriro definitzeko prozesu bat gehitu zen.
- **NAZIOARTEKOTZE PLANAK:** parte hartzaile bakoitzaren nazioarteko ibilbidea hasteko edo posizioa indartzeko banakako ibilbide orrien bidez egindako definizio estrategikoa.
- **2019ko KSIATEA-ren JARRAIPENA:** Programaren bigarren edizioan, KSlatea programaren edizio pilotuan egindako Nazioartekotze Planak baloratzeko fase bat gehitu zen.

Gaitasunen hobetzeak, bestalde, **PRESTAKUNTZA FASE** bat izan du zeharkako ardatz gisa. Hau nazioartekotzearekin lotutako gaien webinar formatuan egindako jardunaldien bidez eta aurrez aurre gabatutako pilula birtualen bidez burutu da.

KSlatea programaren 2019ko eta 2020ko edizioetan lortutako emaitza nagusiak eta lortutako mugarrak laburbiltzea da dokumentu honen **helburua**.

2. IKUSPEGI OROKORRA

KSlatea programaren plangintza eta exekuzioak, 2019ko edizio pilotuan eta 2020ko bigarren edizioan, beren nazioarteko potentzialari buruzko ikuspegia lortu duten 100 erakunde baino gehiago inplikatu ditu. Horrez gain, hauek zenbait jardunaldi eta prestakuntzarekin osatu dute programan izandako ibilbidea.

Zehazki, programaren emaitza orokorrak, parte-hartzeari eta izandako eraginari dagokienez, honako hauek izan dira:

1.Taula. 2019. eta 2020. KSlatea programaren emaitza orokorrak

	KSlatea 2019	KSlatea 2020	Guztira
Onarpen eskaerak	54	56	110
Nazioartekotze diagnostikoak	51	52	103
Nazioartekotze planak	20	30	50
Prestakuntza saioak	6	6	12
Aurrez-aurretik grabatutako pildorak	-	13	13

Iturria: Geuk egina

3. NAZIOARTEKOTZE DIAGNOSTIKOEN FASEA

HELBURUA


Erakundeen gaitasunak eta nazioarteko merkatuetara hedatzeko duten ahalmena aztertzeko diagnostikoa egitea. Aurreko honi, 2020ko edizioan, COVID-19 pandemiak erakunde parte hartzaileetan izandako eragina zehaztea eta hauen balio proposamenaren birdefinitzea gehitu zitzaion.

LORTUTAKO EMAITZAK

Fase honen emaitza nagusiak honako hauek izan dira:

- **Nazioartekotzeko potentzialari buruz diagnostikatutako KSI sektoreko 103 euskal erakunde** (87 enpresa eta 16 fundazio/elkarte, ikusi I. eta III. eranskinak). Lagin horrek Euskadiko KSI-en aniztasuna islatzen du, 13 azpisektore egon baitira ordezkatuta; horien artean, ikus-entzunezkoak (% 19), arte eszenikoak (% 18), musika (% 14) eta diseinua (% 10) nabarmentzen dira.

1. Irudia. KSIatea programaren 2019 eta 2020-ko partaideak, azpisektoreko




Iturria: Geuk egina

- Diagnostikoa egiteko eta horrela erakundeen nazioarteko potentziala ezagutzeko, ebaluatu beharreko 4 aldagaitan oinarritutako galdetegi bat erabili zen: eskainitako **produktuaren edo zerbitzuaren** prestakuntza-maila, jorratu beharreko **merkatuaren** ezagutza, enpresaren **antolaketa-egitura** eta **taldearen** abilezia.

- Programaren edizio pilotuan (**KSIatea 2019**), erakundeen diagnostikoen emaitzak positiboak izan ziren, nazioartekotzerako %60ko prestakuntza orokorreakin.
- **2020ko** edizioan berriz, diagnostikoen emaitzak hobetu egin dira, parte-hartzaileen **prestakuntza-maila orokorra % 72ra igoz** bataz beste.

2. Irudia. Nazioartekotze-diagnostikoen emaitza orokorrak 2019 (ezkerrean) eta 2020an (eskuinean).



Iturria: Geuk egina

- 2020ko edizioko 52 erakunde parte hartzaileentzat banakako lan saioak egin ziren, erakunde bakoitza berre errealitate berrira egokitzen laguntzeko. Horretarako azterketa sakon bat egin zen, erakundeei Covid-19-aren ondoren **bezeroei sortutako behar berriak** hautematen eta **balio proposamen berri bat birdefinitzen laguntzeko**.
- Erakunde parte-hartzaile bakoitzaren emaitzak **banakako txostenetan** jaso ziren, ondorio orokorrekin eta nazioartekotzera begira etorkizun hurbilean aplikatu beharreko ekintza gomendatuekin.

4. NAZIOARTEKOTZE PLANEN FASEA

HELBURUA

Nazioartean zabaltzeko ahalmen handiena duten erakundeentzat **nazioartean aritzeko ibilbide horri bat lantzea**, zehazki:

- Nazioartera zabaldu beharreko negozio-ereduari edo proiektuari buruzko hausnarketa.
- Nazioartekotzeko estrategia garatzeko ibilbide potentzialen azterketa.
- Nazioartekotze-helburuen definizio argia eta laburra.
- Ezarritako helburuetara iristeko 2021ean egin beharreko ekintza zehatzen zerrenda, haien aukera eta beharretan oinarrituta.
- Jarduera horiek finantzatzeko aukerak aztertzea, batez ere Eusko Jaurlaritzak nazioartekotzekorako sustatutako laguntza erabilgarriekin lotura eginez.
- Dokumentu formal bat (Nazioartekotze Plana), *Basque Trade Investment* erakundeak Zabaldu eta Sakondu programetan eskatzen duen formatuari egokitua.

LORTUTAKO EMAITZAK

1. Banakako planak gauzatzeko eredu

Erakunde parte hartzaileentzako banakako esku-hartze eredu bat garatu zen, nahiz eta gero enpresa bakoitzari bere beharren arabera egokitu zitzaion arren, orokorrean honela egituratu zen:

- Lehen saioa: *abiapuntua*; diagnostikoaren emaitzak berrikustea, eta nazioartekotu beharreko negozioaren edo proiektuaren ereduari buruzko gogoeta egitea.
- Bigarren saioa: *definizio estrategikoa*; nazioartekotzeko bideari, kanpora ateratzeko tipologiari eta ingurune lehiakorraren azterketari buruzko eztabaida.
- Hirugarren saioa: *definizio operatiboa*; nazioartekotze-helburuen definizioa eta hedapenari ekiteko behar operatiboak identifikatzea, balizko finantzabideei lotutako ibilbide-orri bat ikusteko, bereziki BTrena.

- Laugarren saioa: *emaitzak baliozkotzea*; plana osatzen duten datuak enpresarekin kontrastatzea, eta kronograma eta mugarriak berrikustea.

2. Enprekin banakako bilerak

Zehaztutako esku-hartze eta gauzatze-ereduari jarraituz, programaren bi urteetan, guztira 200 banakako bilera egin ziren (50 erakunde, bakoitzarekin 4 bilera) fase honetan onartutako enprekin.

Dinamika horri esker, nazioartekotzeko 50 plan lortu dira guztira. Horrela BTIk ezarritako formatu eta edukien estandarren arabera, euskal kultura- eta sormen-sektoreko 50 enpresak ibilbide-orri bat izan dute nazioarteko merkatuei heltzeko, bai eta nazioarteko sustapeneko beharrak asetzeko erabilgarri dauden zerbitzuak eta finantzaketa lortzeko informazioa ere.

3. Finantzaketa programak eskaintzen duten erakundeekiko konexioa

Euskadiko eta Europako erakunde nagusien nazioartekotze eta lehiakortasun-programak aurkezteko, harremanak mantendu dira, besteak beste, Europa Sortzailea, Basque Trade & Investment, Etxepare Institutua, Bizkaiko Foru Aldundia eta Elkargirekin, nazioartekotzeari laguntzeko dituzten programak eta ekimenak ezagutzeko.

5. PRESTAKUNTZA FASEA

HELBURUA

Nazioartekotze-prozesu bati aurre egiteko orduan, erakunde parte hartzaile zein KSI sektoreko beste enpresa, elkarte eta klusterrak, kontuan hartu beharrezko funtsezko elementu eta **gaietan gaitzea**.

LORTUTAKO EMAITZAK

Programaren bi urteetan zehar, kultura eta sormen industrien nazioartekotzearekin lotutako gaiiei buruzko 12 prestakuntza jardunaldi antolatu dira, guztira 334 parte-hartzaile bilduz.

2.Taula. KSIatea-ren prestakuntza jardunaldien datu nagusiak

URTEA	GAIAK	FORMATUA	PARTE HARTZAILE KOP.
2019	Kultura eta sormen industriak nazioartekotzeko bideak	Presentziala (Euskadiko Artxibo Historikoa, Bilbao)	41
2019	Negozio Eredua eta Nazioarteko Marketina	Presentziala (IDOM, Bilbao)	22
2019	Banaketa, Elkarlanak eta Sareak	Presentziala (Tabakalera, Donostia)	21
2019	Nazioarteko Kontratazioa eta Fiskalitatea	Presentziala (Arabako Merkataritza Ganbera, Vitoria-Gasteiz)	14
2019	Jabetza intelektuala eta Finantzaketa	Presentziala (Euskadiko Artxibo Historikoa, Bilbao)	18
2019	Nazioartekotzerako Informazioa Bilatzeko metodoak	Presentziala (Tabakalera, Donostia)	9
2020	Zein da nire helburua? Eraiki zure balio-proposamena, berrasmatu zure negozio-eredua eta aldaketetara egokitu	Webinario	25
2020	Nola kontatzen duzu zure istorioa zure bezeroarengana iristeko? Bezero, sare eta laguntzaileengana iristeko storytelling-a	Webinario	45
2020	¿Nola babesten duzu zure nazioarteko jarduera? Nazioarteko kontratazioaren oinarriko kontzeptuak	Webinario	20
2020	Zer faktore fiskal hartu behar dira kontuan nazioarteko bezeroei saltzen zaienean? Fiskalitatea eta ordainbideak	Webinario	35
2020	Non bilatu finantzaketa? Nola saldu inbertitzaile bati?	Webinario	63
2020	Nola babesten dituzu zure aktibo ukiezinak? Jabetza intelektuala nazioarteko merkataritza harremanetan	Webinario	21
PARTAIDETZAK GUZTIRA (2019+2020)			334

Iturria: Geuk egina

Programaren lehen edizioan zehar antolatutako prestakuntza saioak jardunaldi presentzialen bidez egin ziren, hauetan nazioartekotze-prozesuan zeuden erakundeentzako intereseko gaiak jorratuz. 2020an COVID-19ren ondoriozko murrizketen ondorioz, jardunaldiak modu birtualean egin dira, bere egitura aldatu gabe, eta gainera ekitaldiek ingurumenean duten eragina minimizatuz bai eta Euskadiko geografiako puntu anitzagoetatik interesa izan duten pertsoneri aukera emanez. Fase hori modu ezin hobean aurrera eramateko, hainbat tresna teknologiko sartzea baloratu zen; besteak beste, Google Forms, Zoom eta bideoak grabatzeko eta editatzeko beste tresna batzuk.

KSIatearen bigarren edizioko prestakuntza-mintegien osagarri gisa, aurrez grabatutako 13 pilula birtual egin ziren (2. taula), parte-hartzaileentzat eta publiko orokorrarentzat, Kulturgileak¹ webgunean eskuragarri jarri direnak, zuzeneko prestakuntza osatzeko.

3. Taula. Prestakuntza piluletan landutako gaiak

Pilula	Aurreiazko izenburua
P1	Eraiki edo berrasmatu zure kultur negozio eredia .
P2	Eraiki edo berrasmatu zure sormen negozio eredia .
P3	Nola ari dira egiten beste batzuk? KSI-en aukerak COVID-19-aren ondoren .
P4	Konta ezazu zure istorioa: Storytelling-a zure bezeroarengana hurbiltzeko.
P5	Adimen lehiakorra : nola bilatu nazioartekotzerako baliagarria den informazioa.
P6	Kide eta aliantza estrategikoen bila: sareen eta lankidetzen balioa nazioartekotze prozesuan.
P7	Konektatuta: etekina atera online marketineko tresnei eta sare sozialei .
P8	Nazioarteko kontratazioaren oinarrizko kontzeptuak.
P9	Nazioarteko fiskalitatearen oinarrizko kontzeptuak.
P10	Zure proiekturako finantzaketa lortu : inbertsoreen arreta erakarri eta laguntzak eta dirulaguntzak topatu.
P11	Aukerak aprobetxatu: Europar proiektuetarako hautagaitzak prestatzeko gakoak.
P12	Babestu zure aktibo ukiezinak: jabetza intelektuala KSI-etan.
P13	KSI eta GIH: 2030 Agenda kultura- eta sormen-industrietan .

Iturria: Geuk egina

Azkenik, nabarmentzekoa da prestakuntza-jardunaldiak eta parte-hartzaileekin egindako bilerak birtualki egiteak eragin positiboa izan zuela. Horrek esan nahi du ekitaldiek

¹ <https://www.kulturgileak.eus/es/jarduerak>

zuzenean edo zeharka isuritako berotegi-efektuko gas guztiak gutxitu direla.

Aurrezki hori kuantifikatzeko, IDOM-ek karbono-aztarna kalkulatu du, tamaina bereko proiektuetan erabiltzen den tresna baten bidez. Tresna horrek aukera ematen du kalkulua doitzeko eta ekitaldiek tCO₂eq-etan (karbono dioxido baliokideen tonak) izan duten eragina neurtzeko. Guztira, 6,4 tCO₂eq aurrezki dira saioak modu birtualean egiteagatik, ibilgailuen erabilera eta esparru fisikoko energia elektrikoa saihestegatik sortzen diren aurrezkiekin.

6. HEDAPEN FASEA

6. HEDAPEN FASEA

HELBURUA

Programa Euskadiko kultura eta sormen-industrien sektorea osatzen duten **eragileen artean elkar ezagutzea**, interesa erakusten duten eta KSIatea programan sartzeko eskaria egingo duten erakundeen masa kritikoa lortzeko.

Tabakalerako Komunikazio Sailarekin batera, Komunikazio Ekintza Plan espezifiko bat diseinatzea eta ezartzea, fase bakoitzerako publiko objektiboak, kanalak (sare sozialak, off line, etab.) eta ekintza zehatzak eta egutegiak zehaztuz.

LORTUTAKO EMAITZAK

Programarekiko zeharkako komunikazio lana egin zen, eta antolatutako jarduerak, batez ere, honako bide hauen bidez sustatu ziren:

- Programaren aurkezpen publikoak 2019 eta 2020ko edizioetan.
- Sare sozialetarako argitalpenak eginez (Twitter, Facebook, LinkedIn, Instagram)
- Newsletter-a: programaren bigarren edizioan zehar hilero Newsletter bat egitea eta bidaltzea.


3.Irudia. KSIatea Newsletterra



Iturria: Geuk egina, IDOM

- Web Orria (Kulturgileak)

4. Irudia. Kulturgileak webgunea



Iturria: Kulturgileak

7. 2019. URTEKO KSIatearen JARRAIPEN FASEA

HELBURUA

KSIatea programaren **2019ko edizioan** egindako Nazioartekotze Planen **emaitzak monitorizatzea** izan da helburu, 2020ko edizioan.

LORTUTAKO EMAITZAK

Banakako **bilera telematikoak** egin ziren KSIatea 2019ko esparruan Nazioartekotze Plana egin zuten **20 enprekin**, programaren lehen edizioaren emaitzak eta, bereziki, nazioartekotzeko laguntza publikoen eskaeran izandako arrakasta-maila ebaluatzeko. Ondorioak:

- **Enpresen % 50ek ezarri zuten plana**, eta, gehienek, partzialki. Bi erakundek baino ez zuten jarri plana praktikan bere osotasunean, nazioartekotzeko laguntzak lortuz (Zabaldu eta Sakondu programak, hurrenez hurren).
- **Plana praktikan jarri zuten 10 enpresetatik, % 40k nazioartekotzeko laguntzak eskatu zituzten**. Azpimarratu behar da zenbait erakundek planean jasotako ekintzak egin dituztela, baina oraingoz ez dutela laguntza publikorik eskatu. Eskatutako laguntzak era askotakoak izan dira, besteak beste, **BTIren Sakondu eta Zabaldu programak, BEAZ-en Bizkaia Sortzailea programa eta SPRIren Hazinnova programa**.
- **Plana praktikan jarri ez den kasuetan, arrazoiak zehaztu nahi izan dira**, eta ondorioztatu da **COVID-19 izan dela eragozpenik handiena**. Erakundeen % 40k arazo larriak izan dituzte enpresan edo jarduera eten dute; beste % 40k, berriz, nazioarteko merkataritza-jarduera egitea ezinezkoa zela adierazi zuen, pandemiaren eraginez.

I.ERANSKINA. 2019. URTEKO ERAKUNDE PARTE HARTZAILEEN ZERRENDA

	KSI AZPISEKTOREAK	ERAKUNDEAK		LURRALDEA
1	Arkitektura	Muka Design Lab		Bizkaia
2	Musika	Guerrilla Kulturala Elkarte		Araba
3	Arte eszenikoak	Shakti Olaizola		Bizkaia
4	Edizioa eta baliabide inprimatuak	Elkar Argitaletxeak S.L.		Gipuzkoa
5	Edizioa eta baliabide inprimatuak	Libros de Ruta Ediciones SL		Bizkaia
6	Eduki digitalak	Arkikus - Patrimonio Virtual, S.L.		Araba
7	Musika	DeepSoda koop elkarte txikia		Gipuzkoa
8	Arte eszenikoak	Zorraquino		Bizkaia
9	Arte eszenikoak	Dantzaz		Gipuzkoa
10	Arte eszenikoak	Marie de Jongh		Bizkaia
11	Eduki digitalak	Agla4d		Bizkaia
12	Ikus entzunekoak	Baga-Biga Produkzioak		Bizkaia
13	Bideo-jokoak	Gestionet Multimedia, S.L.		Bizkaia
14	Arte eszenikoak	Teatro Gorakada		Bizkaia
15	Arkitektura	WAS-Studio		Bizkaia
16	Publizitatea eta marketina	c2+i / Conexiones improbables		Araba
17	Arkitektura	Estudio Beldarrain		Gipuzkoa
18	Musika	Cielo Raso		Gipuzkoa
19	Arte eszenikoak	Borobil Teatro		Gipuzkoa
20	Arte eszenikoak	HKA Antzerki Taldea		Gipuzkoa
21	Musika	Buenawista Proleczkiom's		Gipuzkoa
22	Musika	Guajira Sicodélica		Gipuzkoa
23	Publizitatea eta Marketina	Platypus Labs		Gipuzkoa
24	Arte eszenikoak	Hortzmuga Teatro		Bizkaia
25	Publizitatea eta Marketina	Teklak. Komunikazio eta Audientzien Estudioa		Araba
26	Moda	Internacional Comercio Trading SL		Bizkaia
27	Ikus-entzunekoak	Brightvibes		Bizkaia
28	Musika	Mundaka festival A.I.E.		Bizkaia
29	Moda	Luhei		Gipuzkoa
30	Moda	Sophie et Voilà		Bizkaia
31	Kultur ondarea	Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa		Gipuzkoa
32	Ikus-entzunekoak	Txintxua Films		Gipuzkoa
33	Ikus-entzunekoak	Kalakalab SC		Araba

	KSI AZPISEKTOREAK	ERAKUNDEAK		LURRALDEA
34	Edizioa eta baliabide inprimatuak	Elhuyar		Gipuzkoa
35	Arte eszenikoak	DOOS Colectivo		Araba
36	Musika	Da Capo		Gipuzkoa
37	Diseinua	Angelica Barco Studio		Bizkaia
38	Arte eszenikoak	Úbiqa Tecnología, Ideas y Comunicación		Bizkaia
39	Ikusmen arteak	Bitamine Faktoria		Gipuzkoa
40	Musika	Talka Records SL		Gipuzkoa
41	Musika	Luma Suite S.L.		Gipuzkoa
42	Ikus entzuneoak	Arriguri		Bizkaia
43	Diseinua	Art for Life!		Bizkaia
44	Ikus entzuneoak	Pausoka Entertainment		Gipuzkoa
45	Ikus entzuneoak	Banatu Filmak		Bizkaia
46	Arte eszenikoak	Markeliñe		Bizkaia
47	Ikus entzuneoak	Xoraturikan SL		Gipuzkoa
46	Publizitatea eta Marketina	Susana Zaballa		Bizkaia
47	Ikus entzuneoak	Sonora Estudios		Araba
48	Ikus entzuneoak	Tinko		Gipuzkoa
49	Ikus entzuneoak	SmatCinema LivingLab		Gipuzkoa
50	Musika	Forbidden Colours		Bizkaia
51	Edizioa eta baliabide inprimatuak	M3O Consonni		Bizkaia
52	N/A	Panda Artist Management		Navarra
53	N/A	Konká		Gipuzkoa
54	N/A	Emovere		Gipuzkoa

II.ERANSKINA: 2019. URTEKO PLANEN FASEAREN PARTE HARTZAILEEN ZERRENDA

	KSI AZPISEKTOREA	ERAKUNDEA	LURRALDEA
1	Edizioa eta baliabide inprimatuak	M3O - Consonni Ediciones	Bizkaia
2	Musika	Luma Suite	Gipuzkoa
3	Ikus entzuneak	Brightvibes	Bizkaia
4	Kultura ondarea	ARKIKUS - PATRIMONIO VIRTUAL, S.L.	Araba
5	Ikus entzuneak	Txintxua Films	Gipuzkoa
6	Musika	Bay of Biscay	Bizkaia
7	Moda	Luhei	Gipuzkoa
8	Moda	Sophie et Voilà	Bizkaia
9	Edizioa eta baliabide inprimatuak	Libros de Ruta Ediciones	Bizkaia
10	Diseinua	MUKA	Bizkaia
11	Sektore anitzekoa	c2+i / Conexiones improbables	Araba
12	Ikus entzuneak	BANATU FILMAK	Bizkaia
13	Arkitektura	WAS Studio	Bizkaia
14	Arte eszenikoak	Borobil Teatroa	Gipuzkoa
15	Musika	Forbidden Colours	Bizkaia
16	Edizioa eta baliabide inprimatuak	Elkar Argitaletxeak	Gipuzkoa
17	Sektore anitzekoa	Art for Life!	Bizkaia
18	Sektore anitzekoa	TEKLAK	Araba
19	Arte eszenikoak	Marie de Jongh	Bizkaia
20	Musika	Da Capo	Gipuzkoa

III.ERANSKINA: 2020. URTEKO ERAKUNDE PARTE HARTZAILEEN ZERRENDA

	KSI AZPISEKTOREA	ERAKUNDEA	LURRALDEA
1	Ikus entzunekoak	Señor y Señora SL	Gipuzkoa
2	Edizioa eta baliabide inprimatuak	Fulgencio Pimentel SL	Araba
3	Kultura ondarea	The Languages of Energy	Gipuzkoa
4	Edizioa eta baliabide inprimatuak	ALT Autores Servicios Editoriales SL	Bizkaia
5	Edizioa eta baliabide inprimatuak	Bonito Editorial	Bizkaia
6	Ikus entzunekoak	Apellaniz & De Sosa SL	Gipuzkoa
7	Kultura ondarea	Espacio Open Bilbao	Bizkaia
8	Ikus entzunekoak	BFE Creación Audiovisual	Araba
9	Ikus entzunekoak	Kanaki Films SL	Gipuzkoa
10	Ikus entzunekoak	Film Travel Agency SL	Gipuzkoa
11	Edizioa eta baliabide inprimatuak	Xarpa Books	Gipuzkoa
12	Musika	Guajira Sicodélica SL	Gipuzkoa
13	Musika	Promociones Musicales Get In SL	Gipuzkoa
14	Arte eszenikoak	Kulunka Teatro SL	Gipuzkoa
15	Arte eszenikoak	Hika Antzerki Taldea	Gipuzkoa
16	Kultura ondarea	Albaola Itsas Kultur Faktoria	Gipuzkoa
17	Arte eszenikoak	Zirkun Zirko Eskola	Bizkaia
18	Ikus entzunekoak	Soul Pictures SL	Gipuzkoa
19	Musika	Global Sound Lab	Bizkaia
20	Arte eszenikoak	DOOS Colectivo	Bizkaia
21	Hizkuntzaren industriak	Dualia Teletraducciones SL	Gipuzkoa
22	Arte eszenikoak	La Glo Circo	Bizkaia
23	Arte eszenikoak	Cía Trotamundos	Bizkaia
24	Ikus entzunekoak	Doxa Producciones SL	Bizkaia
25	Artisautza	Abian Skateboards	Gipuzkoa
26	Arte eszenikoak	Zirkozaurre	Bizkaia
27	Musika	Asociación Festival de Jazz de Vitoria-Gasteiz	Araba
28	Arte eszenikoak	Oihulari KlowN SL	Gipuzkoa
29	Ikus entzunekoak	Área Proyectos Audiovisuales y Culturales SLU	Araba
30	Arte eszenikoak	Trakamatraka	Bizkaia
31	Ikus entzunekoak	Sonora Estudios SL	Araba
32	Ikusmen arteak	Josune Urrutia Asua	Bizkaia
33	Ikus entzunekoak	Mirokutana	Gipuzkoa

	KSI AZPISEKTOREA	ERAKUNDEA	LURRALDEA
34	Arte eszenikoak	Bea Larrañaga	Gipuzkoa
35	Musika	Last Tour Concept SL	Bizkaia
36	Ikusmen arteak	Sisu Studio	Gipuzkoa
37	Eduki digitalak	ChallenTech InnoSolutions SL	Bizkaia
38	Eduki digitalak	Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa	Gipuzkoa
39	Diseinua	Mayala (María Ayala)	Araba
40	Moda	Lasai Wear	Gipuzkoa
41	Moda	Ifeelnut	Bizkaia
42	Diseinua	Estudio Marina Goñi S.L.	Bizkaia
43	Publizitatea eta Marketina	C4E Consulting Services SL	Bizkaia
44	Diseinua	Silvia Ceñal Design Studio SL	Gipuzkoa
45	Moda	Waixo Fashion & Digital Solutions, S.L.	Bizkaia
46	Arkitektura	cAnicca [a+d+u]	Bizkaia
47	Diseinua	Noelia Lozano Studio	Gipuzkoa
48	Arkitektura	Kalea(n) bizi	Gipuzkoa
49	Moda	Davidi Dú	Gipuzkoa
50	Moda	Amarenak	Gipuzkoa
51	Diseinua	Artaziakoop	Bizkaia
52	Diseinua	Angelica Barco Studio	Bizkaia
53	Diseinua	PerpetumStore SL	Bizkaia
54	Moda	Internacional Comercio Trading SL	Bizkaia
55	N/A	Haizur	Gipuzkoa
56	N/A	ExpoChess Xake Elkartea	Gipuzkoa

IV.ERANSKINA: 2020. URTEKO PLANEN FASEAREN PARTE HARTZAILEEN ZERRENDA

	KSI AZPISEKTOREA	ERAKUNDEA	LURRALDEA
1	Ikus entzunekoak	Señor y Señora SL	Gipuzkoa
2	Edizioa eta baliabide inprimatuak	Fulgencio Pimentel SL	Araba
3	Edizioa eta baliabide inprimatuak	ALT Autores Servicios Editoriales SL	Bizkaia
4	Edizioa eta baliabide inprimatuak	Bonito Editorial	Bizkaia
5	Ikus entzunekoak	Kanaki Films SL	Gipuzkoa
6	Ikus entzunekoak	Film Travel Agency SL	Gipuzkoa
7	Edizioa eta baliabide inprimatuak	Xarpa Books	Gipuzkoa
8	Musika	Guajira Sicodélica SL	Gipuzkoa
9	Musika	Promociones Musicales Get In SL	Gipuzkoa
10	Arte eszenikoak	Kulunka Teatro SL	Gipuzkoa
11	Arte eszenikoak	Hika Antzerki Taldea	Gipuzkoa
12	Ikus entzunekoak	Soul Pictures SL	Gipuzkoa
13	Musika	Global Sound Lab	Bizkaia
14	Hizkuntzaren industriak	Dualia Teletraducciones SL	Gipuzkoa
15	Arte eszenikoak	Cía Trotamundos	Bizkaia
16	Ikus entzunekoak	Doxa Producciones SL	Bizkaia
17	Arte eszenikoak	Oihulari Klow'n SL	Gipuzkoa
18	Ikus entzunekoak	Área Proyectos Audiovisuales y Culturales SLU	Araba
19	Ikus entzunekoak	Sonora Estudios SL	Araba
20	Musika	Last Tour Concept SL	Bizkaia
21	Arte eszenikoak	Marie de Jongh (participante 2019)	Bizkaia
22	Kultura ondarea	Arkikus (participante 2019)	Araba
23	Ikus entzunekoak	Banatu Filmak (participante 2019)	Bizkaia
24	Ikus entzunekoak	Txintxua Films (participante 2019)	Gipuzkoa
25	Eduki digitalak	ChallenTech InnoSolutions SL	Bizkaia
26	Moda	lfeelnut	Bizkaia
27	Diseinua	Estudio Marina Goñi S.L.	Bizkaia
28	Diseinua	Silvia Ceñal Design Studio SL	Gipuzkoa
29	Moda	Waixo Fashion & Digital Solutions, S.L.	Bizkaia
30	Arkitektura	cAnicca [a+d+u]	Bizkaia
31	Arkitektura	Kalea(n) bizi	Gipuzkoa
32	Diseinua	Artaziakoop	Bizkaia